

KONEXIO ROBOTIKOA

Orain dela 3 urte, Pertsonen eta Roboten hartean gerra bat egon zen, Robotak Pertsonak Robotetan bihurtu zituzten. Horretako bat Cris izan zen, gerra bukatzean, 3 urte egon zen pentsatzen zela lortuko zuen berriz pertsona izatea. Egun batean akordatu zen Robot batzuk entzun zituela beste mundu batena berba egiten, orduan Robotak bilatzera joan zen.

Crisen Robotak burua oso handia du, eskuak eta hankak bezala, begiak, zabalik ditu beti eta ahoa irrifar batekin. Cris oso leiala da baina premia gorrian bizi denez, ez du lagunik, jendeak ez dituelako nahi pobreak etxean. Cris pixka bat beldurtia da, eta iluntasunari dio beldurra.

Bere misioko lehenengo egunean, ez zekien lortuko zuenik, orduan, ez zuen lo egin. Hurengo egunean, gosaldutik aurretik, paseo bat ematera joan zen eta 34 Roboteko talde bat ikusi zuen. Lehenengo Robota hiltzean, disko bat topatu zuen, bere ordenagailuan ipintzean, bere amaren bideo bat agertu zen “ zure misioa lortzeko zure beldurra gainditu behar duzu” -esaten zuen. Bideoa ikusi orduko, bere beldurra gaindituko zuela ezan zuen.

Oihu egitean, Robot denak entzun zioten eta beregana joan ziren. Pausoak entzutean, eskutatza joan zen, suertez, ez zuten topatu, baina bere eskutalekutik irtetean, 2 Robotek ikusi zuten eta berarengana joan ziren. Crisek ez zuen eskutalekurik, orduan, bere beldurrak gainditu zituen eta burruka irabazi zuen. Gero zerutik txip bat jauzi zen, ordenagailuan ipini zuen eta mapa bat zela ikusi zuen, mapak bere gorputzera eramaten zuen eta kohete bat ikusi zuenez, kohetera sartu eta Rijira abiatu zen, beste planeta batera, 1000 argi urtetara.

Kohetean igo bezain pronto, ziztu bizian hasi zen hegaren argiaren abiaduran. Hain azkar joatearren, erregaia bukatu egin zen. Planeta bat ikusi zuen gertuan, orduan, Planetaren atmosferara joan zen. Baina gasolinerara gerturatzean, Rijiko base baten plano bat topatu zuen. Planoaren gainean botoi bat zegoen “teleporteeruma” ipintzen zuen, itzulita teletrasportatu zela. Botoia ikutzean Rijin agertu zen. Eraikin bat ikusi zuen, orduan, berarengana joan zen. Gerturatzean, planoko eraikina zela konturatu zen, orduan, korrika joan zen. Heldu zenean, atetik sartzen sailatu zen, baina blokeatuta zegoen, orduan eskalatzea erabaki zuen. Goiko pisura heldu zenean, kobazulo ilun bat ikusi zuen, beldurra zuen baina bere amak esan zion hitzak gogoratu zuen, orduan, beldur gabe sartu zen.

sartzean, ez zuen ezer ikusten, horrela segitu zuen 50 metroan, eta azkenean, argi bat ikusi zuen, korrika joan zen, baina heltzean eta bere gorputza ikustean, oso triste jarri zen. Bere gorputzak gaiztoak ziren Robot deneri ematen zien energia. 5 ordu egon zen eskina baten, pentsatzen zer egingo zuen, eta azkenean, bere gorputza deskonektatzea erabaki zuen, orduan, jaiki eta kapsularen gana joan eta begiak itxita, bere gorputza deskonektatu zuen. Robot gaiztoak, tiroteoak, inteligentzia artifiziala eta gerrak desagertu egin ziren, Crisekin batera, eta Cris-ek, mundua salbatu zuen.

Mr.1+1